

ALDARRIKAPEN EGUNA

Urtarrilak
Enero

27

Euskal Herrian
egin dezagun posible!

Pandemia garaia gogor kolpatu du euskal langileon bizimodua. Lan-merkatua astindu du, aurretik zetorren prekarizazio prozesua azkartuz, eta desberdintasun sozialetan sakontzea ekarri du, pandemia aurretik aberastasunaren banaketa desegokia bazen, are eta alde handiagoa dugu orain. Bi urteko ibilbide malkartsuan, agerian geratu dira sistema honen hutsuneak, osasun sisteman, zaintzan eta oinarritzkoak diren lanetan, esaterako.

Lan munduan ez da lan erreforma indargabetzeko erabakirik hartu eta sustatutako moldaketak askiek dira edota ez diete euskal langileen beharrei erantzuten. Beste horrenbeste esan dezakegu pentsio erreformari buruz.

Ildo beretik, EAEko zein Nafarroako aurrekontuek ez diete erantzunik ematen langileon behar eta aldarrikapenei, ez dituzte politika neoliberalak alboratu eta ageriko hutsuneak dituzte.

Baditugu, beraz, arrazoiak Euskal Herrian ziklo mobilizatzaile berria irekitzeko, indar-harremanak langileon alde jartzeko. Tamalez, mugarri behar zukeen Greba Orokorren bidea zapuztu bada ere, geure asmoei eusten diegu: lantokietan borroka sindikalak biderkatzea goaz, kanean dinamika soziala hauspotu eta lan eta bizi baldintzak eraldatzeko euskal bide orria sustatzea dagokigu. Norabide horretan proposamen bi egin ditugu: bata, enpleguaren esparrua arautuko lukeen Euskal Lan Kodea, eta bigarrena, Gizarte Segurantzako Lege Propioa, pertsona guztion zaintza eta osasun-beharrei erantzungo liekeena.

Aldi berean, lan munduan aldaketarako oinarritzkoak jotzen ditugun aldarrikapenekin LABetik patronalari lanbide arteko bost akordio proposamen egin dizkiogu, sektoreetako eta lantokietako borrokekin, langileon egunerokoarekin erabat konektatu dauden aldarriak dira. Proposamen hauek ez dute negoziazio kolektiboa ordezkatzeko, baina bertan dauden arrakala eta ahulguneak gainditzeko modua emango ligukete. Era berean, lan munduan behar dugun aldaketa egungo elkarriketa sozialeko mahaiaetatik ere ez da etorriko. Eremita politikotik mahai antzu horien apologia egiten

dutenek hobe lukete jarrera proaktibo bera patronala interpelatzeko baliatzea, akordioetarako bidea errazagoa litzateke, zalantzarik gabe.

Aldaketak, adostasunak, ez dira, berez etorriko, langileon aktibaziotik baizik. Horregatik, urtarrilaren 27rako Aldarrikapen Eguna deitzen dugu Euskal Herriko lantokietan, tokiko borrokak lan mundua eraldatzeko oinarritzko aldarrikapenekin lotuz.

Aldarrikapenak

- › 1.400 euroko gutxieneko soldataren bidean urratsak ematea.
- › Gehienez 30 orduko asteko lanaldiaren bidean urratsak ematea.
- › Genero arrakala gainditzea
 - » Kontratazio-promozio gardentasuna
 - » Diskriminaziorik ez
- › Enplegu suntsiketa amaitzea
 - » Kaleratze kolektiboak egiteko arrazoiak gogortu
 - » Kaleratzeagatik kalte-ordainak handitu.
 - » Bidegabetzat jotzen diren kaleratzeetan langileek erabakitzea kalte-ordaina onartu ala lanpostura itzultzea.
 - » Lan agintaritzaren esku-hartzea berreskuratu
 - » Subrogazio eskubidea
- › Lanaldi partzialak mugatzea
 - » Gutxieneko lan jardunaldi bat ezarri
 - » Lanaldi partzialak inposatzeagatik penalizazioak enpresarentzat
- › Enplegu publikoa egonkortzea

Lantoki bakoitzaren egoeraren arabera lehentasunezkoztat dugun aldarria edo aldarrien bueltan langileak batzeko ekimenak (lantoki bakoitzeko baldintza eta aukeren arabera) sustatuko ditugu.

Lantokian >> lantokitik >> **ERAGIN!**

LAB

**BURUJABETZA
BIZITZA DUINERAKO**
Vamos hacia el cambio

La pandemia ha golpeado con dureza la forma de vida de los y las trabajadoras vascas. Ha sacudido el mercado laboral, acelerando el proceso de precarización que venía de antes, y ha supuesto profundizar en las desigualdades sociales. Si antes de la pandemia el reparto de la riqueza era inadecuado, ahora las desigualdades se han incrementado. En el tortuoso recorrido de estos dos años, han quedado de manifiesto los déficits de este sistema, por ejemplo en el sistema de salud, en los cuidados y en los trabajos que son esenciales.

En el mundo laboral no se han adoptado decisiones para derogar la reforma laboral y las modificaciones que se han promovido son insuficientes o no responden a las necesidades de las y los trabajadores vascos. Podemos decir otro tanto sobre la reforma de pensiones.

Siguiendo la misma línea, los presupuestos de la CAV y de Nafarroa no dan respuesta a las necesidades y reivindicaciones de las y los trabajadores, no dejan a un lado las políticas neoliberales y presentan déficits manifiestos.

Por lo tanto, sí que tenemos razones en Euskal Herria para abrir un nuevo ciclo de movilizaciones, para situar la correlación de fuerzas a favor de los y las trabajadoras. Por desgracia, aunque se haya frustrado el camino de la Huelga General que debería ser un hito, seguimos adelante con nuestros objetivos: vamos a multiplicar las luchas sindicales en los centros de trabajo, impulsar la dinámica social en la calle y nos corresponde promover la hoja de ruta vasca para transformar las condiciones de trabajo y de vida. En esta dirección, hemos realizado dos propuestas: la primera, el Código Laboral Vasco que regularía el ámbito del empleo y la segunda, una Ley Propia de Seguridad Social, que respondería a las necesidades de cuidados y de salud de todas las personas.

Al mismo tiempo, desde LAB hemos realizado a la patronal cinco propuestas de acuerdos interprofesionales, con reivindicaciones totalmente conectadas a las luchas de sectores y centros de trabajo y con el día a día de los y las trabajadoras. Estas propuestas no sustituyen la negociación colectiva, pero nos darían una posibilidad de superar las brechas y los puntos débiles existentes en la misma. Del mismo modo, el cambio que necesitamos en el mundo laboral tampoco vendrá de las mesas de diálogo social. Quienes, desde el ámbito político, realizan

una apología de esas estériles mesas harían mejor utilizar la misma actitud proactiva para interpelar a la patronal, la vía para los acuerdos sería más sencilla, sin duda.

Los cambios y los acuerdos no vendrán por sí solos, sino desde la activación de las y los trabajadores. Por ello, para el 27 de enero convocamos una Jornada de Reivindicación en los centros de trabajo de Euskal Herria, uniendo las luchas locales a las reivindicaciones básicas para transformar el mundo del trabajo.

Reivindicaciones

- › Dar pasos en el camino de un salario mínimo de 1.400 euros.
- › Dar pasos en el camino de una semana laboral con un máximo de 30 horas.
- › Superar la brecha de género
 - » Transparencia en contrataciones y promociones
 - » No a la discriminación.
- › Terminar con la destrucción de empleo
 - » Endurecer las razones para realizar despidos colectivos.
 - » Aumentar las indemnizaciones por despido.
 - » En los casos de despidos improcedentes, que sea el o la trabajadora quien decida entre aceptar la indemnización o volver al puesto de trabajo.
 - » Recuperar la intervención de la autoridad laboral.
 - » Derecho a la subrogación.
- › Limitar las jornadas parciales
 - » Establecer una jornada laboral mínima.
 - » Penalizaciones a empresas por imponer jornadas parciales
- › Dotar de estabilidad al empleo público.

Promoveremos iniciativas para reunir a las y los trabajadores en torno a las y las reivindicaciones que consideremos prioritarias en función de la situación de cada centro de trabajo (según sean las condiciones y posibilidades de cada centro de trabajo).

Lantokian >> lantokitik >> ERAGIN!

LAB

**BURUJABETZA
BIZITZA DUINERAKO**
Vamos hacia el cambio